



Lurgaiia Fundazioa



2002an sortu zen Lurgaia fundazioa, aurretik Urdaibai fundazioa izan zena. Erakunde pribatua eta irabazi asmorik gabekoa da, eta bere helburua naturaren ondarearen kontserbazioan eta kudeaketan laguntzea da. Bere jardun-eremuak estatu espainiar osoa hartzen badu ere, jarduera gehienak, praktikan, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dira.

2003ko hasieran ekin zitzaien jarduerari, eta, gaur egun gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dira, Urdaibaiko Biosferan (Bizkaia) batez ere, nahiz eta bere jardun-eremua iberiar penintsula osoa izan.

Lurgaia fundazioaren jarduerak bideratuta daude natura-inguruneko biodibertsitatearen kontserbaziora. Espeziek, habitatek eta horiei lotutako prozesu ekologikoez eta paisaiak osatzen dute natura-ingurune hori.

Horretarako, lurraldearen kudeaketan parte hartzen dugu, espezie mehatxatuak berreskuratzen laguntzen dugu, ikerketak sustatzen ditugu eta naturaren kontserbazioaren dibulgazioari eta sentsibilizazioari lotutako jarduerak egiten ditugu.

Planetaren zati handi batean gertatzen den moduan, Euskal Herriko eta inguruneko ingurumen-arazoak lotuta daude ekosistemen narriadurarekin, eta, beraz, biodibertsitatea galdu izanarekin. Horrenbestez, hiru programatan biltzen dira Lurgaia fundazioak martxan jarri dituen ekimenak.

Programa biri dagokienez, helburua da mehatxu gehien duten ekosistemetan lan egitea: batetik, basoetan, Quercus programaren bidez, eta, bestetik, hezeguneetan eta ekosistema urtarretan, Aqua programaren bidez. Hirugarrenari dagokionez, helburua da animalia- eta landare-espezieak galtzen geldiaraztea, Biodibertsitatea programaren bidez.

PROGRAMA quercus



Quercus programaren helburua da baso autoktonoaren berreskurapena edo/eta kontserbazioa, jatorriko landaredia berrezarritik (edo ahal dela, kontserbatuz), horrek dakarren onura ekologiko guztiarekin: lurzorua babestea, dibertsitate biologikoari eustea, paisaiaren berezkotasunari laguntzea...

Gaur egun, arboladi gutxi dute berezko egoera naturala. Oro har, oso zatituta eta erregresio-prozesuetan daude, era askotako presioak jasaten dituztelako, eta horiek ez datoz bat arboladien kontserbazioarekin eta garapenarekin.

Hauek dira Programaren helburu zehatzak:

- Baso naturalen kontserbazioa eta berreskuratzea
- Basoetako ezaugarri genetikoak babestea
- Ekosistema horiei lotutako dibertsitate ekologikoari eustea
- Erakunde pribatuak naturaren ondarearen kontserbazioan inplikatzea
- Naturaren kontserbazioari lotuta, herritarrak hezi, eragin eta konprometitzea.
- Gizateriarentzat ekosistemak duen garrantzia bistaratzea eta ekosistemaren berri ematea.

Ekosistemak berreskuratzen eta hobetzen direnean, ez zaie bakarrik mesede egiten ekosistema osatzen duten landare-espeziei; izan ere, biodibertsitatea berreskuratze osoa ere sustatzen da.

Helburu horiek erdiesteko, Fundazioak lau zutabe ditu oinarrian:

- Lurraldea zaintzea
- Landarearen jatorria

- Borondatezko lana
- Segida ekologikoa

Programa martxan ipini zenetik, oinarrizko lerro estrategikoak indartzen jarraitu da urterik urte, bere helburu nagusia betetze aldera: baso autoktonoa leheneratzea. Oraindik ere helburu nagusia, eta lortzen zailena, jardun-lurraldera sartu ahal izatea da.

2010eko amaiera arte kontuan hartuta, Lurgaia fundazioak 130 hektarea ingururen jabetza du Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan eta Nafarroan zatituta; guztira, 89 lursail ditu. Urtetik urtera, zaintza-itun berriei esker, lursailak gero eta gehiago dira. Gehienak azalera txikikoak dira, bertoko zatiketa handia dela-eta. Jarduerak, berriz, lurzoruaren erabilera aldatzeko bideratuta daude: pinudiak eta eukalipto-sailak kendu eta jatorriko bermea duten baso autoktonoetako espezieak landatzen dira, ingurumen-boluntarioekin.

PROGRAMA
aqua

Hezeguneak (padurak, ibaiak, urmaelak, putzuak...) oso ingurune makalak dira, zuzenean suntsitu direlako (lehortzeak) eta berezko egoera naturalak aldarazi direlako (uren kutsadura, ibaiak bideratzea...). Hil ala biziko ekosistemak dira, gainera, nazio eta nazioarteko eremuan gainbeheran dauden animalia eta landare askorentzat, eta, beraz, kontserbatzea da organismo horiek geroa izan dezaten berme bakarra. Azken bi mendeetan, galdu egin da Euskal Herriko itsasbazterreko antzinako hezeguneen azaleraren erdia, baita ibaietako eta ubideetako zingira-ekosistemen ehuneko handi bat ere.

Aqua programa euskal hezeguneen egoera hobetzeko diseinatuta dago, eremu degradatuak leheneratuz, zingira-ingurune berriak sortuz eta dauden zingira-inguruneak kontserbatuz.

Programako proiektuen artean nabarmentzekoa da Amunategi Errekastoaren Leheneratze Ekologikoa, Urdaibaiko biosfera-erreserbaren bihotzean. Quercus programarekin zuzenean lotuta ez badago ere, bere helburua da hango ekosistema urtarra eta bertan bizi diren espezieak leheneratzea. Hori dela eta, 2004az geroztik, Lurgaia fundazioak lurraldea zaintzeko kudeaketa franko egin du, batetik, Amunategi errekastoko bazterrak eta terrazak garbitzeko eukaliptoaren zura aprobetxatzeak dakartzan eragin txarretatik, eta, bestetik, ekosistemak eskaintzen dituen zerbitzuak maximizatzeko: biodibertsitate-gordailua, uholdeak kontrolatzea, auzokoak eta aisia-tokiak edateko uraz hornitzea. Hau da, *“Amunategi Errekastoa Leheneratze Ekologikoa”* proiektua. Errekasto horretako lursail askoren zaintzari eta ingurumen-boluntarioen lanari esker, erabilera aldatu egin da, eukalipto-sailak kendu eta ibaiertzeko basoa eta baso mistoa ezarri dira. Horrenbestez, lagundu egin da espezie mehatxatuak kontserbatzen, esaterako ur-ipurtatsa eta baso-igel iberiarra; errekasto horretan bizi dira, gainera, Euskal Herriko baso-igel iberiar gehienak.



PROGRAMA
biodiversidad

Euskal Herriko naturak mendez mende aldaketa asko jasan ditu. Gaur egun, paisaiek, ekosistemen egiturek eta funtzionamenduek ez dute zerikusi handirik jatorrikoekin. Hala, antzinako espezie asko, gure lurraldean ugariak zirenak, edo gutxienez arruntak, urritu egin dira, toki txikiagoa dute, eta, areago, desagertu egin dira, batzuetan.

Biodibertsitatea programaren asmoa da mehatxu gehien duten edo makalen dauden espezieen egoera hobetzen laguntzea. Horretarako, espezieen ugaritasuna, banaketa eta ekologia ikertzen dira, eta proiektuak egiten dira populazioak indartzeko, espezieak berriz sartzeko, eta fauna eta flora kontserbatze aldera lurraldea kudeatzeko.

Proiektuen artean nabarmentzekoa da Area hondartzakoa, 2008an hasi zen, Galdames ibaiaren bokalean, Muskiz eta Zierbena artean, Bizkaiko Lurralde Historikoko mendebaldean. Garrantzi ekologiko handikoak dira bertako ekosistemak, "Galdames ibaia" Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) baita. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Flora Mehatxatuaren Katalogoko hainbat flora-espezie bertan bizi dira. Gaur egun, pertsonek eragindako presio handia jasaten dute hango dunek, Bizkaiko biztanle askorentzat aisialdigune gogokoenetarikoa baita. Horrenbesterekin, degradatu egiten ari da apurka-apurka, eta, hala, bere ingurune-balioak urritzen. Hori dela-eta, Lurgaia fundazioak *"Muskizko dunak babesteko eta haiei balioa emateko"* proiektuari ekin zion, Muskizko Area hondartzako dunen degradazioa geldiarazte aldera. Hiru jarduera nagusi ditu: pertsonek igarobideen inguruneetan babes-hesiak jartzea, espezie exotiko inbaditzaile nagusietatik garbitzea, eta enklabeari balioa ematea.

Heziketa eta dibulgazioa

2003an gure ibilbideari ekin genionetik, dibulgazioan eta ingurumen-heziketan arreta berezia jarri dugu, uste dugulako, hori egin ezean, gure jarduerak eta ekintzak ez direla osoak.

Hori dela-eta, ez dugu aukerarik galdu gure proiektuak erabili eta gure inguruneak dituen aberastasunaren eta arazoen berri emateko, baita gure inguruneari lotutako ekitaldietan parte hartzeko ere. Horrexegatik, txangoak eta ingurumen-boluntarioen jarduerak egiten ditugu, eta ikastaroetan, jardunaldietan, ferietan eta dibulgazio-materialetan parte hartzen dugu, besteak beste.

Informazioa eta harremanetarako

www.lurgaia.org

info@lurgaia.org

lurgaia.blogspot.com

www.facebook.com/lurgaia

20052 Posta-Kutxa – 48014 – Bilbo - Bizkaia

944052186 / 656703496